

kontzertuen agenda

Leku hau zabalik duzu zure ekitaldien berri emateko

Abisua astearte eguerdiko 14:00ak baino lehen eman ezazu, arren

Tel.: 943 30 02 22 / Faxa: 943 30 02 55
E-posta: barkatu_ama@egunkaria.com

Osteguna 18

- **ALGORTA** • **Arima Beltza**. Irish tabernan, 20:00etan.
- **ARRASATE** • **Su Ta Gar**. Gaztetxean, 20:30etan.
- **BILBO** • **The Yum Yums** eta **Bonzos**. Azkena aretoan, 22:00etan.
- **Kuraia**. Kafe Antzokian, 22:00etan.
- **Null\$katte\$nylterne**, **Fuzz Machine** eta **Howlin' Chihuahua**. Bilborock aretoan, 20:00etan. Bilbo Hiria pop-rock lehiaketa. Pop-rock atala.
- **DONOSTIA** • **Fito y Fitipaldis**. Gazteszena aretoan, 21:00etan. Sarrerak agortuta daude.
- **Makala plays Novophonic**. Etxekalte danz kluban.
- **ZARAUZ** • **Joseba Tapia**. Arrano elkartearen, 20:30etan.

Ostirala 19

- **BAIGORRI** • **Dank**. Bixentenan, 21:00etan.
- **BAIONA** • **Anari** eta **GaCelle Larroud**. Luna Negra aretoan, 20:30etan. 8 eurotan.
- **BARAKALDO** • **Nuevo Catecismo Catolico**. Mendigo tabernan, 21:00etan. Kontzertua amaitutakoan, punk festa Mellid tabernan.
- **BASAURI** • **Half Foot Outside** eta **Mushiticians**. Ibaigane kultur etxean, 21:00etan. 3 eurotan.
- **BENICASSIM** • **Kepa Junkera**. Udal antzokian, 22:30etan.
- **BERGARA** • **Benito Lertxundi**. Udal pilotalekuan, 22:30etan.
- **Asier Serrano**. Gaztetxean,

- 22:30etan. Diskoaren aurkezpena.
- **BERMEO** • **Javier Sun**. Aspaldiko aretoan, 23:00etan.
- **BERRIZ** • **Sagarroi** eta **Eten**. Gaztetxean.
- **BIASTERI** • **Txuma Murugarren & Rafa Rueda**. ASK dantzalekuan, 22:30etan.
- **BILBO** • **Siniestro Total**. Kafe Antzokian, 22:00etan.
- **The Cumshots** eta **Zombie-Eaters**. Bilborock aretoan, 20:00etan. Bilbo Hiria pop-rock lehiaketa. Metal atala.
- **DONOSTIA** • **Araña**. Etxekalte danz kluban.
- **ELGOIBAR** • **Kobak** eta **Sinuose**. Gaztetxean, 22:00etan.
- **GERNIKA** • **JizzJazz**. Metropol aretoan, 22:30etan.
- **GORLIZ** • **Sophie Nun Squad**. Xurru aretoan.
- **IRUÑA** • **Boikot** eta **Cuerno de Chivo**. Reverendos aretoan.
- **IRURTZUN** • **Txomin & Urbil Artola**. Iratxo elkartearen, 20:30etan.
- **LEZO** • **Balerdi DJ** eta **DJ Ke!**. Leizta tabernan, 23:00etan.
- **MADRIL** • **Marea**.
- **OIARTZUN** • **Berri Txarrak** eta **Osorek**. Pagoa aretoan, 22:00etan. Gero, **DJ Kazey**, **M.Boo** eta **MC Otis**.
- **ONDARROA** • **Etsaiak**. Kafe Antzokian, 21:30etan. 4 / 5 euro.
- **QUART DE POBLET (VALENTZIA)** • **Valhalla**. APK Rock aretoan.
- **URTUELLA** • **Sekula Santan**. Intxaurdin, 22:30etan.

Larunbata 20

- **AITZOAIN** • **La Fuga** eta **Mister Fyln**. Artsaia aretoan, 23:00etan.

Far Out (Bilbo), Tail (Valentzia) eta The Carburetors (Norvegia).

Apirilaren 11. Bilbo Hiriko XIV. Pop-Rock Lehiaketa

Gau ederra gitarren artean

Far Out Bilboko taldea gonbidatu gisa agertu zen. Lau musikariek, argitzalean, 70eko hamarkadako rock psikodeliko landu zuten, suite baten moduan: pieza luzeak, hasieran lasai, amaieran indar osoz. Lagun beteranoak dira (lehen Lovercraft eta Gilah Monster taldeak osatu zituzten), eta ohiko lana berritzen saiatu ziren: gitarren garrantzia (pedal eta efektu zaharrez baliatzen dira), ahots gutxi (eta beti bigarren plano batean), jarrera nabarmena. Lan ederra eta laburra eskaini zuten, baina Mermaidekin aldentzen badugu, Far Outen mugak agerzen dira.

Tail valentziarrek ere atzera begiratu zuten: ingelesez kantatutako rock and roll huts eta arina egin zuten lehenbiziko unetik, Detroiteko estilora hurbilduz (Stooges, MC5), noizean behin punk rockerraino heltzen zirela. Aurrekoak bezala, musikari beteranoak dira: lehen, Nigromantes, Los 5 Ibericos, R.C. Druids eta antzeko bandetan ibiliak dira. Kantariak estilo eta jarrera egokiak adierazi zituen, eta azken kantuan kamiseta erantzi zuen, Jim Morrisonen eta Iggy Popen artean geratzeko. Interesari eutsi zioten.

Eta amaitzeko, gaueko talde interesgarriena: Osloko The Carburetors boskotea. Entzuleriari bizkarra emanez hasi ziren, eta lehenbiziko akordeak egin ondoren, ez ziren gelditu: arropa egokiak (rockabilly modukoak, kapela bakeroa zenbait kasutan), kantari nabarmena, bi gitarra arin eta sendoak, erritmo bikote nekaezina, ahozko harmoniak. Primerako lana egin zuten norvegiarrek, beti abiada bizian, baina gitarraren solo bikainak eskaintzeko prest; bikainak kantuen amaierako sinkronizazioan ere. Harro-harro egon ziren iparraldeko lagunak: batzuetan, Jason & The Scorchers edo Supersuckers ematen zuten; beste batzuetan, Dr Feelgood edo Eddie & The Hot Rods. Beraz, gau ederra izan genuen gitarren artean, eta, gainera, azken hauek jasotako txaloen arabera, faborito berri bat.



Boikot Bizkarra emanez

Hiru urte ziren Boikot taldearen diskorik jasotzen ez genuela. Baina, atsedean txiki horren ostean, indar biziz eta disko berri batekin itzuli dira orain. *De espaldas al mundo* deitu diote lan berri honi, euren bederatzigarrenari. Punk rock estiloko kantu gogorak dira, zuzenak, munduko arazoei gogor eutsi eta ekiten dizkietanak. Ohiko estiloan ekin diote aurkezpen birari. Asteburu honetan Euskal Herrian izango dira. Bihar, Iruñean izango dira eta larunbatean Bilbon.

- **ARRASATE** • **Bingen Mendizabal & Mikel Urdangarin (Bar Puerto)**. Amaia antzokian, 22:30etan.
- **Ekon** eta **Anger**. Gaztetxean, 22:00etan.
- **BERA** • **Anari** eta **Bide Ertzean**. Kultur etxean, 22:30etan.
- **BERANGO** • **Joseba Tapia**. Kultur etxean, 20:00etan.
- **BERGARA** • **Pretty Maids** eta **Royal Hunt**. Jam aretoan, 21:00etan.
- **BILBO** • **Zodiacs** eta **Señor No**. Kafe Antzokian, 21:00etan.
- **Sharon Shannon**. Arriaga antzokian.
- **Ene Bada**. Urretxindorra ikastolan, 20:00etan.
- **Boikot** eta **Silencio Absoluto**. Bilborock aretoan, 21:00etan.
- **CASTELLON** • **Valhalla**.
- **DONOSTIA** • **Barley Juice** eta **Talbot**. Gazte lokalean, 22:00etan.
- **El Nota**. Etxekalte danz kluban.
- **ELGOIBAR** • **Ekinocio**, **Sin** eta **Lady's Ramone**. Gaztetxean, 20:30etan.
- **EZPELETA** • **Ikara**, **Flor del Fango**, **T.L.T** eta **Eztanda**. Merkatu estalian, 21:00etan. IAre aurkezpen jaia.
- **GASTEIZ** • **Solo Los Solo**, **7 Notas 7 Colores** eta **Etiqueta Negra**. Azkena aretoan, 21:00etan.
- **GERNIKA** • **Emaio**, **Nimbus**, **Nork**, **Ost**, **Parasma**, **Baneteuamba**, **Ken 7**, **Etsaiak**, **Ileon**, **Aitita Txiki Txalaparta Taldea** eta **disko jartzaileak**. Hizkuntza eskubideen eguna. 21:00etan.
- **GETARIA** • **No More Lies** eta **Simca**. Gaztetxean.
- **IRUN** • **Daniel Ray**, **Sista Carol** eta **Backing Legal Shout**. Tunk! aretoan, 23:00etan.
- **IRUÑA** • **Makala & Chico**.
- **ISABA** • **Cuerno de Chivo**. Gaztetxean.
- **LAKUNTZA** • **Kaotiko**. Plazan, 22:00etan.
- **Akelarre**. Pilotalekuan, 00:00etan.
- **LAUDIO** • **Monaguillos Sin Fronteras**, **Dog Bite** eta **Folkore**. Orbeo etxean, 20:00etan. 3 euro.

- **LIZARRA** • **Marea**. Gaztetxean, 23:00etan. 3 eurotan.
- **MADRIL** • **Hirurko** eta **Berri Txarrak**. Gruta 77 aretoan, 22:00etan.
- **MANRESA (BARTZELONA)** • **Betagarri**, **Brams** eta **Deskarats**. Kiroldegian.
- **OIARTZUN** • **Alan Sommerville**, **Jerard Macias** eta **Imanol**. Pagoa aretoan, 01:00etan.
- **ONDARROA** • **Anje Duhalde**. Kafe Antzokian, 22:00etan. 6 / 8 euro.
- **OTXANDIO** • **Soziedad Alkoholika**. Plazan, 22:00etan.
- **PASAJA** • **Antiheroe**, **Kobory** eta **Cementerio Show**. Antxoko Campsako lokaletan, 20:00etan.

Igandea 21

- **BILBO** • **Hiram Bullock**. Kafe Antzokian, 21:00etan. 13 / 15 euro.
- **Motorpsycho** eta **The Soundtracks Of Our Lives**. Bilborock aretoan, 21:00etan.

ZOZKETAK

- **Hauek dira Markos Untzetaren Agurrak beti dauka zapore garratza singlea irabazi duten lagunak: Pedro Zubero goitia (Deustu), Maite Fernandez (Santurtzi), Oihan Odrizola (Zarautz), Irantzu Iruarizaga (Donostia), Iñigo Igarza (Zumarraga), Aitor Duñabeitia (Durango), Irati Pagogaga (Aretxabaleta), Juan Lucio (Igorre), Aitor Romeo (Deustu) eta Pablo Kormenzana Lumberras (Iruñea).**

- **DONOSTIA** • **Monaguillos Sin Fronteras**, eta **Ira et Decessus**. Mogambo aretoan, 20:00etan.
- **4 Itzal** eta **Nuevo Catecismo Catolico**. Guardetxean (Alde zaharrean), 20:00etan.
- **LAZKAO** • **The Come Ones**. Torrano tabernan.
- **PASAJA** • **Trikizio**. Donibanen, 17:00etan.
- **ZAMUDIO** • **Ene Bada**. Trikitilari egunaren barruan.

Astelehena 22

- **BILBO** • **Zast** eta **Hotzez Minduta**. Bilborock aretoan, 19:00etan.

Astearte 23

- **BILBO** • **Penitencia** eta **Sacrum Stulti**. Bilborock aretoan, 19:00etan.

Asteazkena 24

- **BILBO** • **Iberica 112** eta **La Logia**. Bilborock aretoan, 19:00etan.
- **IRUN** • **Cryptopsy**, **Haemorrhage**, **Profanity** eta **Spawn**. Tunk! aretoan, 21:30etan.

Sen "Gaizki Esanak..." JADA KALEAN

CD • MC

Metak

CD • MC

T.L.T. Minus

APILAK 25 KALEAN